

## FUNTSEZKO SOZIJETATEAK

Gure enpresan hurrengo aliantza edo erlazioak zaindu behar ditugu hurrengo taldeekin:

- **Material hornitzailea:** ikasgaiko materialak erosiko diogun enpresa izango da, ahalik eta merkeen erostea da helburua, hortaz ahalik eta erlazio hoberena izatea beharrezkoa da deskontuak egiteko. Material guztia enpresa berdinari erostea erabaki dugu, horrela merkatal erlazioan hobariak lortuko ditugu.



- **Garbiketa konpania:** CLYMA enpresa. Gure espazio guztien garbiketa eta desinfekzioa behar beharrezkoa da tailerrak amaitzean eta gelen alokatze denborak bukatzean. Gaur egun gainera, pandemiaren eraginez, bezeroen konfiantza lortzeko ezinbesteko puntua da.

- **Lokalaren jabea:** Egingo dugun inbertsioa lokala erostean proiektuaren kostu handiena suposatuko du. Lokalen jabearekin erlazio on bat mantentzea ezinbestekoa da agertzen diren beharrei erantzun ahal izateko.



- **Lan eskaintzailea:** ondo etorriko ligukete gure lan eskaintzak ondo promozionatzen duen enpresa edo aplikazioa aurkitzea, hau da, aurkitzea gure lan eskaintzak irakasle gehien erakusten duen zerbitzua aurkitzea, aukera gehiago izateko eta irakasle hoberena aurkitzeko

- **Ikastetxeak:** hainbat ikastetxeekin erlazio ona izatea ere oso komenigarria izango da, gure enpresa kontratatu dezaten tailerrak egiteko edota hainbat aktibitate antolatzeko. Modu honetan ere gure proiektua ikusgarria izango da hango ume, gazte eta familiei gure existentziak jakinarazteko.





- **Publizitate konpania:** BcomeDigital enpresa. Publizitate konpania on bat aurkitu beharra dago, kanpainak sortzeko eta jende gehiago gure berri izateko eta interesa pizteko.

- **Urtebetetze konpania:** Party Planners Bilbao (festa antolatzailea). Ospatuko ditugun urtebetetzeak hainbat osagarri izango dituzte, eta haietako asko ezingo ditugu prestatu edo ekoiztu, adibidez tartak, dekorazioa, animazioa.... Horregatik konpania on bat zerbitzu askorekin aukitu behar dugu, bezeroen nahiak asetuko dituzten ospakizunak eskaintzeko.

